

ARABA BIZIKLETAZ argazki lehiaketaren oinarriak

1. EREMUA

Argazki lehiaketaren oinarri hauek ARABA BIZIKLETAZ proiektuarekin lotuta daude. Proiektu hori Arabako Foru Aldundiak sustatu du eta Meta Final SLk antolatu (info@metafinal.com).

Proiektu horren bidez, bizikletaren erabilera garraiobide gisa sustatu nahi da Arabako Lurralde Historikoan.

Horretarako, sei mikroekitaldi egingo dira Arabako herri hauetan:

- Agurain: Urtarrilak 29
- Murgia: Otsailak 5
- Laudio: Otsailak 12
- Langraiz Oka: Otsailak 19
- Santikurutze Kanpezu: Otsailak 26
- Oion: Martxoak 5

Sei mikroekitaldi horietako bakoitzean argazki lehiaketa bat egingo da, eta parte hartzeko arauak oinarri hauetan azaltzen dira.

2. PARTE HARTZAILEAK:

Sei mikroekitaldietako bakoitzean, edozein pertsonak parte hartu ahal izango du lehiaketan, baldin eta ekitaldia egingo den herriko kuadrillan bizi bada. Hau da, Arabako Lautadako kuadrillan bizi diren pertsonak baino ez dute parte hartuko Aguraingo argazki lehiaketan. Eta irizpide hori beste herrietako ekitaldiei ere aplikatzen zaie.

Parte hartzaile bakoitzak nahi adina argazki bidali ahal izango ditu.

3. GAIA:

Bidalitako argazkiek bizikleta giroan egon beharko dute, eta panel batean inprimatuta jarriko dira ekitaldia egiten den bitartean, sei herrietako bakoitzean. Erakundeak ez inprimatzeko eta argazki guztiak ez erakusteko eskubidea gordetzen du beretzat, gutxieneko kalitate irizpideak betetzen ez dituztelako, parte hartzaile berak bidalitako beste argazki batzuekiko diferentzialak ez direlako edo bidalitako argazki guztiak erakusteko nahikoa lekuri ez duelako.

4. BIDALKETA ETA PARTE HARTZEA:

Argazkiak ekitaldi bakoitzaren aurreko osteguneko 24:00ak baino lehen bidali beharko dira posta elektronikoz info@metafinal.com helbidera.

5. SARIAK:

Parte hartzaile guztiek opari bat jasoko dute parte hartze hutsagatik. Opari hori motxila islatzaile bat izango da, eta ekitaldia egiten den egunean emango da, lehiaketan parte hartzen duen pertsona bakoitzeko bat. Ekitaldi bakoitzean gehienez 30 motxila emango dira.

Erakundeak zozketa bat egingo du ekitaldi bakoitzean parte hartzen duten pertsonen artean, eta irabazleari 50 euroko txartel bat emango dio Gasteizko TREK dendan truka dezan. Pertsona bakoitza behin sartuko da zozketan, zenbat argazki bidali dituen alde batera utzita. Antolakundea harremanetan jarriko da irabazlearekin, opari txartela ekitaldiaren egunean bertan emateko lanak koordinatzeko.

6. OINARRIAK ONARTZEA: *Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du erabat onartzen direla oinarri hauek guztiak eta epaimahaiaren epai apelaezina.*